

ABE

Amara Berriko Egunkaria

nº 64

2011ko maiatzaren 12a



egileak:
Julia, Ane, Alex eta Oscar

a g u r r a

lepa lagunok!
kriston ABE a egin
dugunez gustokoa
izango dezutela
espero degu, ber-
tan Albiste bitxiak
idazlan magikoak,
abestiak, asma-
kizunak, elka-
rizketak, cruci-
grama bat eta in-
gelesez dagon lan
bat eta guzti
aurkituko duzue
eta gozatu ira-
kurtzen.
Aio!



3,6 Metroko Ilea

Emakume Txinatar batek 3,6 metroko ilea moztuko du bordatu bat egi-
teko. 20 urteetan ez du ilea moztu. Jiang Aixiuk ilea garbitzeko gutxie-
nez 2 ordu behar ditu eta horregaitik
moztea erabaki du. Urtean 10 cm lu-
zaten zaio ilea ezer berezirik egin
gabe, ilea erortzen zaionean poltsa
batean gordetzen du, dagoeneko 10
poltsa bete ditu.

Berriemailea: Daniel Ortega



Googleren Beste Aplikazio Batzuk

Googlek eskaintzen dituen hainbat aplikazio edo zerbitzu oso ezagunak dira esatera-
ko, Google bilatzailea, Gmail posta zerbitzua edo Google Docs documento edizio eta
gordailu zerbitzua. Baina Googlek eskaintzen duen aplikazio sarta askoz ere zabala-
goa da, eta artikulo honetan interesgarriak suerta daitezke aplikazio batzuk era-
kutsiko ditugu. Kontuan hartu, zeinbait aplikaziotan saioa hasi beharko dela eta,
horretarako, kontu bat izan behar dela eta, horretarako, Googleko kontu bat izan
behar da. Googlek eskaintzen dituen aplikazio guztien zerrenda ikusteko, helbide
honetara jo behar da: <http://goo.gl/d387>. Googlek haibat aplikazio ezagunak dira;
Hala ere, badira hain ezagunak ez izan arren interesgarriak diren aplikazio eta zerbit-
zuak. Asko badira, ere, baker batzuk erakutsiko ditugu hemen: Google bilatzailearen
aukera aurreratuak, Google docs, datu-orriak, google body Google translate, Goo-
gle liburuak, Google alerts, Art project, Knol eta askoz gehiago.

Berriemailea: Mainer Echaniqu



a u r k i b i d e a

- 1.- portada: 3,6 mertoko ilea eta googleren beste aplikazio bat.
- 2.- elkarrizketa: Maialen eta Aratz.
- 3.- kontu kontari: abestia eta asmakizuna.
- 4.- lumaren kilima: Euxebio eta untxia.
- 5.- gu ere idazle: Crucigrama.
- 6.- entretenigarriak: Odd one out

6. eta 5. Postua

Datorren igandean 6. eta 5. postua jokatuko du 3. zikloko Amara Berri Morlanseko taldeak San Luis Lasalleren aurka. 10:00etan izango da partidua, hondartzan.



E L K A R R I Z K E T A

Maialen



Non gustatuko litzaizuke bizitza Donostian ez balitz?
New Yorken.
Zein da zure lagunik hoberena?
Asko ditut.
Zein da zure kolorerik gogokoena?
Urdina.
Zein klase gustatzen zaizu gehien?
Soinketa.
Zein da zure kirolik gustokoena?
Korrika egitea.
Zein da zure musika talderik gustokoena?
Ez dut.
Zein da zure janaririk gustokoena?
Tarta.
Zein da zure irakaslerik gustokoena?
Susana.

Aratz



Non gustatuko litzaizuke bizitza Donostian ez balitz?
Parisen.
Zein da zure lagunik hoberena?
Asko ditut.
Zein da zure kolorerik gogokoena?
Gorria.
Zein klase gustatzen zaizu gehien?
Soinketa.
Zein da zure kirolik gustokoena?
Futbola.
Zein da zure musika talderik gustokoena?
Ken 7.
Zein da zure janaririk gustokoena?
Pizza.
Zein da zure irakaslerik gustokoena?
Maite.

Asmakizuna eta Abestia

Zein da bere buztana
edo isatsarekin jaten
duen animalia?

-Denak. Ezagutzen
alduzu jaterakoan
isatsa kentzen
duenik ala?



Aldapeko

Aldapeko sagarraren
adarraren puntan,
puntaren punta,
txoria dago abeslari.
Txiruriruri, txiruriruri,
nork dantzatuko ote du
soinutxo hori?




egilea: Estitxu Olaizola



Espero degu kruzigrama guztia osatzea!! :)

Crucigrama



Verticales:
A-El juego que estas haciendo ahora.

- Horizontales:
- 1- Parte de una escalera.
 - 2- Lo que se hace en el fútbol para meter un gol (antónimo de si).
 - 3- Donde se venden las chuches.
 - 4- Cuando llueve mucho y hay truenos. Nota que va después de “la”.



Egilea: Sua de la cruz

Lumaren kilima

3 . z i k l o k o l a n a k

Eusebio eta Untxia

Bazen behin Euskal Herriko basoetan ehiztari bat, ehiztari ausarta. Gizon hori Eusebio deitzen zen. Basoan sartu zen. Bat - batean leku ireki eta argi batera iritsi zen. Bat - batean untxi handi eta polit bat ikusi zuen. Bere atzetik korrika atera zen eta denbora gutxira bistaz galdu zuen. Leku arraro batean agertu zen, galdu egin zen! Ez zeukan irtenbiderik. Baina konturatu zen bere txakurra Aketz eraman zuela berarerkin. Pentsatu zuen txakurrak irtenbide bat aurkituko zuela, baina txakurrak ez zion lagundu nahi. Hau da txakurrak esan zuena:

- Ez dizut lagundu nahi. Animaliekin gaiztua zara eta. Ez dizut inoiz lagunduko, kontuan izan !!

Baina ez izan hain maltzurra nirekin. Nik dena eman dizut. Niregatik ez balitz ez zinen inor izango. Ez izan zalantzarik !!!

Eusebiok buelta eman zuen eta bizkarra eman zion. Txakurrak burua makurtu zuen triste zegoela adierazteko, baina Eusebiok ez zion kasurik egin. Txakurra errukitu zen eta Eusebio laguntzea erabaki zuen. Leku handi batera atera ziren eta Eusebiok lepa - luze bat ikusi zuen. Zerbait arraroa ikusi zuen lepa-luze horretan baina kasurik egin gabe aurrera jarraitu zuen txakurraren atzetik.

Baina konturatu zen lepa-luzeak ez dutela zerbait grisa eta handia izaten lepoan. Atzeraka bota zen txakurrarekin batera eta konturatu ziren untxi polit eta handia ura zela. Baina ez zekien zer egin, lepa-luzeak oso altuak baitira. Pentsakor jarri zen eta txakurra baita ere. Eusebiok aurpegi polit eta potxolo bat jarri zuen akets bere txakurra konbentzitzeko eta horrela lortu zuen nahi zuena. Baina Eusebiok ez zekien nola esan. Lehendabizi bere eskopeta atera zuen, untxia izutu nahian eta honekin bere plana martxan jarri zuen. Untxiak ikusi zuenean beldurraren beldurrez korrika atera zen. Eta Eusebio bere atzetik. Aketzek Eusebiori koska txiki bat egin zion minik eman gabe. Biak gelditu ziren eta txakurrak esan zion:

- Nire tratua basotik ateratzea zen ez untxi gaixoa tiroz ehizatu! Eskubide berdinak ditugu!

-Ez Aketz, bueno bai. Zure tratua hori zen, baina baita untxi hori ehizatzen lagunduko zenidala ere esan zenidan!

-Eta zer moduz untxia eta zu lagunak egiten bazarete?

-Hori ezinezkoa da!!!!

Eusebiok pixka bat gehiago pentsatu zuen Aketzek esan ziona eta konturatu zen arrazoia zeukala esku-bide berdinak dituztela.

-Barkatu Aketz arrazoia zeneukan eta oso gaixki tratatu zaitut. Eta ez badidazu barkatzen uler-tuko dut.

-Noski, barkatuko dizudala!! Baina untxiaren laguna izango beharko zara.

-Bale! Ados nago.

Aketzek untxiari esan zion ez zegoela arriskurik eta Eusebio eta untxia lagun minak egin ziren. Eta hemendik aurrera Eusebio egunero joaten zen mendira untxia ikustera eta lepa-luzea ere noski.



Egilea: Onintze Nicolas



Hemen daukazue ingeleseko lana!! :)

ODD ONE OUT

Rubber

Pen

Pencil

Banana

Ski

Football

Seat

Kite
surfing

Shark

Dolphin

Fish

Cheetah

Lorry

Motorbike

Van

Nose

